Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2015eko urtarrilaren 28a, asteazkena — 17 — Miércoles, a 28 de enero de 2015

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 3 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*677/2014 FORU AGINDUA, abenduaren 23koa, 180 eredua eta hori aurkeztu eta ordaintzeko moduak eta epeak onartzen dituena.*

*Akats zuzenketa*

Akatsak antzeman dira, izenburuan eta azalpen zatian, 2014ko abenduaren 31ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 249 zenbakian, 2014ko abenduaren 23ko 677/2014 Foru Agindua argitaratzean, alegia, 180 eredua eta hori aurkeztu eta ordaintzeko moduak eta epeak onartzen dituena. Hori dela eta, zuzendu egiten da foru aginduaren testua, eranskinik gabe, berriro argitaratuz:

*677/2014 FORU AGINDUA, abenduaren 23koa, 180 eredua («Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga (establezimendu iraunkorrak). Ondasun higiezin hiritarren errentamendutik edo berrerrentamendutik datozen errenta edo etekin jakin batzuen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena») eta hori aurkeztu eta ordaintzeko moduak eta epeak onartzen dituena.*

Ondasun higiezinen errentamendutik datozen etekinei buruzko informazioaren igorpena arautua du 2002ko urtarrilaren 9ko 2/2002 Foru Aginduak, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, sozietateen gaineko zergan eta establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan ondasun higiezin hiritarren errentamenduen etekinen gainean egindako atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena aitortzeko 180 eredua eta eredu horretako barruko orrien ordez erabili beharreko euskarri magnetikoen diseinu fisiko eta logikoak onartzen dituenak.

Urte hauetan metatutako esperientziak erakutsi duenez, beharrezkoa da foru aginduaren testuan eredu informatiboa aurkeztera behartutako subjektuei buruzko azalpen bat sartzea. Izan ere, eredua aurkezteko betebeharra izango dute higiezin hiritarren errentamendutik edo berrerrentamendutik datozen errentak edo etekinak ordaintzen dituzten pertsona edo entitate guztiek, alde batera utzita etekin horiek atxikipenari edo konturako sarrerari lotuta dauden edo ez.

Gainera, azken ekitaldian onartu dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren foru arau berriak. Hori dela eta, bidezkoa da ereduaren foru aginduan jasotako aipamen jakin batzuk eguneratzea.

Bestetik, foru agindu honetan bilduta daude beste foru agindu batzuetan barreiatuta zeuden ereduaren kudeaketari buruzko alderdi guztiak, eta eguneratu egiten ditu. Hori horrela, testuan sartu ereduaren aurkezpen elektronikoa artzen da, aukera hori lehendik ere gaitua baitzen 2002ko otsailaren 8ko 106/2002 Foru Aginduaren bidez (Internet bidezko igorpena) eta 2002ko abenduaren 5eko 1210/2002 Foru Aginduaren bidez (Editran bidezko igorpena). Era berean, foru agindu honek

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*ORDEN FORAL 677/2014, de 23 de diciembre, por la que se aprueba el modelo 180 y las formas y plazos de presentación.*

*Corrección de errores*

Advertidos errores en el título y en la parte expositiva de la Orden Foral 677/2014, de 23 de diciembre, por la que se aprueba el modelo 180 y las formas y plazos de presentación, publicada en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 249, de fecha 31 de diciembre de 2014, se procede a su subsanación publicando nuevamente la orden foral, sin anexos:

*ORDEN FORAL 677/2014, de 23 de diciembre, por la que se aprueba el modelo 180 «Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Impuesto sobre Sociedades e Impuesto sobre la Renta de No Residentes (establecimientos permanentes). Retenciones e ingresos a cuenta sobre determinadas rentas o rendimientos procedentes del arrendamiento o subarrendamiento de inmuebles urbanos. Resumen anual», y las formas y plazos de presentación.*

La Orden Foral 2/2002, de 9 de enero, por la que se aprueba el modelo 180 de declaración resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de No Residentes (establecimientos permanentes), en relación con los rendimientos procedentes del arrendamiento de inmuebles urbanos, así como los diseños físicos y lógicos para la sustitución de las hojas interiores de dicho modelo por soportes directamente legibles por ordenador, ha venido regulando la transmisión de información en relación con los rendimientos procedentes del arrendamiento de inmuebles urbanos.

De la experiencia acumulada a lo largo de estos años se ha constatado la necesidad de incorporar al texto de la orden foral una aclaración respecto a los obligados a la presentación del modelo informativo, que comprenderá a todas aquellas personas o entidades que satisfagan rentas o rendimientos derivados del arrendamiento o subarrendamiento de inmuebles urbanos, con independencia de que estos rendimientos estén sometidos o no a retención o ingreso a cuenta.

Además, durante el último ejercicio se han aprobado nuevas normas forales del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, por lo que procede actualizar determinadas remisiones recogidas en la orden foral del modelo.

Por otra parte, la presente orden foral recopila todos los aspectos relativos a la gestión del modelo que se encontraban dispersas en otras órdenes forales y los actualiza. Así, incorpora al texto la presentación electrónica del modelo, que ya había sido habilitada a través de las Órdenes Forales 106/2002, de 8 de febrero, en relación a la transmisión por Internet, y 1210/2002, de 5 de diciembre, en relación con la transmisión por Editran, y elimina toda referencia a la presentación

EK\CV GAO-I-2015-00674

kendu egiten ditu zuzenean ordenagailuz irakurri daitekeen euskarriaren bidezko aurkezpenari buruzko aipamen guztiak, hain zuzen lehendik ere 2009ko abenduaren 23ko 1054/2009 Foru Aginduaren bidez kendua baitzen eredu honi zegokionez.

Aurkezpen epe bakarra finkatzen da, eredu informatiboa aurkezteko modua edozein izanik ere: urte bakoitzeko lehenabiziko hogeita hamar egun naturalak, aurreko lehen urteari buruzko informazioari dagokionez.

Eredu informatiboaren edukiari dagokionez, informazio jakin bat sartzen da bai finka zenbakiei edo erreferentzia katastralei buruz eta bai errentan emandako higiezinak lokalizatzeko behar diren gainerako datuei buruz.

Bestetik, 180 ereduaren erregistro elektronikoak berriki onartutako gainerako ereduekin homologatu daitezen, 250etik 500era handitzen da datuak sartzeko ereduan ageri diren posizioen kopurua.

Aurreko guztia aintzat hartuta, foru agindu honen bitartez 180 eredu berria onartzen da.

Horren indarrez, hau.

XEDATZEN DUT

*1. artikulua. 180 eredua onartzea.*

*Bat.* Onartu egiten da 180 eredua, alegia, «Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga (establezimendu iraunkorrak). Ondasun higiezin hiritarren errentamendutik edo berrerrentamendutik datozen errenta edo etekin jakin batzuen gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak. Urteko laburpena». Eredu hori foru agindu honen I. eranskinean jasota dago.

Bi orri ditu ereduak: laburpen orria eta jasotzaileak zerrendatzeko barruko orria.

*Bi.* Onartu egiten dira 180 ereduaren aitorpenek bitarteko elektronikoz eta fitxategi bidez aurkezteko bete behar dituzten diseinu logikoak, foru agindu honetan II. eranskin gisa jasotzen direnak.

*2. artikulua. 180 eredua aurkeztera behartuak.*

180 eredua aurkeztera derrigortuta daude jarraian aipatuko diren pertsona fisikoak, juridikoak eta gainerako entitateak, herri administrazioak barne:

1. Honako hauek ordaintzen dituzten atxikitzera edo kontura ordaintzera behartutako subjektuak: ondasun higiezin hiritarren errentamendutik edo berrerrentamendutik eratorritako atxikipenari edo konturako sarrerari lotutako errentak edo errentamenduak, salbu pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek jasotzen dituzten eta higigarriaren etekintzat hartzen diren higiezin hiritarren berrerrentamendutik eratorritako errentak. Kasu horretan, atxikitzera edo kontura sartzera behartutako subjektuek horretarako onartutako berariazko eredua aurkeztu beharko dute.

2. Honako hauek ordaintzen dituztenak: 2014ko urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaz onartutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduak 94. artikuluaren h) letran eta 1997ko ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretuaz onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduko 54. artikuluaren i) letrako lehen hiru kasuetan eta n) edo o) letretan jasotakoaren ondorioz atxikipenari edo konturako sarrerari lotu gabe dauden higiezin hiritarren errentamendutik edo berrerrentamendutik eratorritako errentak edo etekinak.

*3. artikulua. 180 eredua aurkezteko eta identitatea frogatzeko moduak.*

*Bat.* Honako modu hauek erabili daitezke 180 eredua aurkezteko:

a) Foru agindu honetako II. eranskinean jasota dauden diseinu logikoei jarraituz prestatutako fitxategi informatikoaren igorpen elektronikoa.

mediante soporte directamente legible por ordenador, vía de presentación que, en relación a este modelo, ya había sido suprimida por la Orden Foral 1054/2009, 23 diciembre.

Se fija un plazo de presentación único, cualquiera que sea la forma de presentación del modelo informativo: los treinta primeros días naturales del mes de enero de cada año, en relación con la información referida al año inmediato anterior.

Por lo que respecta al contenido del modelo informativo, se incluye la información correspondiente a los números de finca o referencias catastrales y demás datos necesarios para la localización de los inmuebles arrendados.

Por otra parte, a los efectos de homologar los registros electrónicos del modelo 180 con el resto de modelos aprobados recientemente, se amplía de 250 a 500 el número de posiciones que contienen los registros del modelo para la consignación de datos.

Considerando todo lo anterior, a través de la presente orden foral se procede a aprobar un nuevo modelo 180.

En su virtud,

DISPONGO

*Artículo 1. Aprobación del modelo 180.*

*Uno.* Se aprueba el modelo 180 «Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, Impuesto sobre Sociedades e Impuesto sobre la Renta de No Residentes (establecimientos permanentes). Retenciones e ingresos a cuenta sobre determinadas rentas o rendimientos procedentes del arrendamiento o subarrendamiento de inmuebles urbanos. Resumen anual», que se adjunta como anexo I a la presente orden foral.

El modelo se compone de hoja resumen y hoja interior de perceptores.

*Dos.* Se aprueban los diseños lógicos a los que deberán ajustarse las declaraciones presentadas por medios electrónicos del modelo 180 a través de fichero, que se incluyen como anexo II de la presente Orden Foral.

*Artículo 2. Obligados a presentar el modelo 180.*

Deberán presentar el modelo 180 las personas físicas, jurídicas demás entidades, incluidas las Administraciones públicas, que se recogen a continuación:

1. Las obligados a retener e ingresar a cuenta que satisfagan las rentas o rendimientos sometidos a retención o ingreso a cuenta derivados del arrendamiento o subarrendamiento de inmuebles urbanos, salvo las rentas derivadas del subarrendamiento de inmuebles urbanos percibidas por contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que tengan la consideración de rendimientos del capital mobiliario, en cuyo caso los sujetos obligados a retener o ingresar a cuenta deberán presentar el modelo específico aprobado al efecto.

2. Aquéllas que satisfagan rentas o rendimientos derivados del arrendamiento o subarrendamiento de inmuebles urbanos que no se encuentren sometidos a retención o ingreso a cuenta como consecuencia de lo previsto en la letra h) del artículo 94 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre, en los tres primeros supuestos de la letra i) y en las letras n) y o) del artículo 54 del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por el Decreto Foral 45/1997, de 10 de junio.

Artículo 3. Formas de presentación del modelo 180 y acreditación de la identidad.

*Uno.* Las formas de presentación del modelo 180 son las siguientes:

a) Transmisión electrónica del fichero informático elaborado ajustándose a los diseños lógicos previstos en el anexo II de la presente orden foral.

Honela egin ahal izango da igorpen elektronikoa:

a') Internet bidez, azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduak, zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioa arautzen duenak, ezarritako prozeduraren arabera.

b') Editran sistema erabiliz, abenduaren 5eko 1210/2002 Foru Aginduak, zenbait zerga eredu Editran sistema telematikoaren bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituenak, ezarritakoaren arabera.

Bidali behar den fitxategi informatikoa betetzeko, erabiltzaileek «ZergaBidea» laguntza programa ofiziala izango dute eskura, bai Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunean eta bai Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://www.gfaegoitza.net). Dena den, posible da beste edozein programa informatiko erabiltzea, betiere foru agindu honen II. eranskinean jasota dagoen formatuko fitxategi bat lortzeko aukera ematen badu.

b) Paperezko euskarria, foru agindu honen I. eranskinean jasotako diseinuaren araberakoa. Euskarria honela dago osatuta:

a') Laburpen orria, bi ale dituena: Administrazioaren alea eta interesdunarena.

b') Jasotzaileak zerrendatzeko barruko orria, bi ale ere badituena: Administrazioaren alea eta interesdunarena.

Aipatutako euskarria eskuratzeko, erabiltzaileek inprima dezakete Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (https://www.gfaegoitza.eus helbidean) eskura izango duten PDF artxiboa.

*Bi.* Aitorpenak aurkezteko unean Editran erabil dezaketen zergapekoak kenduta, gorago aipatutako 1011/2010 Foru Aginduaren 1.1 artikuluan sartzen diren guztiek bide elektronikoz bakarrik aurkeztu behar dute eredu informatiboa.

*Hiru.* 1011/2010 Foru Aginduaren 1.1 artikuluko a) eta b) letretan aipatzen diren zergapekoek beren identitatea frogatu behar dute dela sinadura elektroniko balioztatuaren bitartez, dela pasahitz operatiboa erabilita, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen den irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak 21. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

1011/2010 Foru Aginduaren 1.1 artikuluko c) letran aipatzen diren pertsonek edo entitateek sinadura elektroniko balioztatua erabiliz frogatu behar dute beren identitatea, betiere azaroaren 5eko 582/2014 Foru Aginduak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duenak, 9. artikuluan eta horren hurrengoetan xedatzen duen moduan.

Zergapekoak ez badaude behartuta zerga arloko tramite jakin batzuk bide elektronikoz egitera 1011/2010 Foru Aginduaren 1. artikuluan ezarritako obligazioak eragiten ez dielako, eta, hala ere, aitorpena Internet bidez aurkeztea aukeratzen badute, sinadura elektroniko balioztatua edo pasahitz operatiboa erabiliz ez ezik, transmisio prozesuan eskatuko zaien kontraste datuaren bitartez ere frogatu ahal izango dute beren identitatea, lehenago aipatu den 23/2010 Foru Dekretuaren 21. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

*Lau.* Fitxategia aurkezteko kontraste datua erabiltzen duten zergapekoak behartuta daude, ezinbestez, laguntza programa ofiziala erabiltzera fitxategia prestatu eta igortzeko.

Behin fitxategia prestatuta, laguntza programak Ogasun eta Finantza Departamentuaren zerbitzari segururako sarbidea emango du, eta bertan kontraste datua eskatuko da igorpena amaitzeko.

La transmisión electrónica se podrá efectuar a través de:

a') Internet, con arreglo al procedimiento previsto en la Orden Foral 1011/2010, de 24 de noviembre, por la que se regula la obligación de efectuar determinados trámites de carácter tributario por vía electrónica.

b') Editran, de conformidad con lo previsto en la Orden Foral 1210/2002, de 5 de diciembre, por la que se establecen las condiciones generales y el procedimiento para la presentación telemática por Editran de determinados modelos tributarios.

Para la elaboración del fichero informático a transmitir se podrá utilizar el programa oficial de ayuda «ZergaBidea», que se pondrá a disposición de los usuarios en la página web del Departamento de Hacienda y Finanzas y en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa ubicada en la dirección https://www.gfaegoitza.eus, u otro programa informático capaz de obtener un fichero con el mismo formato que el que se recoge en el anexo II de la presente orden foral.

b) Soporte papel, que se deberá ajustar al diseño que figura como anexo I de la presente orden foral. El citado soporte se compone de:

a') Hoja resumen, que comprende dos ejemplares: ejemplar para la Administración y ejemplar para el interesado.

b') Hoja interior de perceptores, que consta, asimismo, de dos ejemplares: ejemplar para la Administración y ejemplar para el interesado.

El referido soporte se obtendrá mediante la impresión del archivo PDF que se pondrá a disposición de los usuarios en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa ubicada en la dirección https://www.gfaegoitza.eus.

*Dos.* A excepción de aquellos obligados tributarios que tengan acceso a Editran y utilicen dicho servicio en la presentación de declaraciones, los que estén incluidos en el artículo 1.1 de la Orden Foral 1011/2010 antes citada, están obligados a presentar el modelo informativo exclusivamente por vía electrónica.

*Tres.* Los obligados tributarios a los que se alude en las letras a) y b) del artículo 1.1 de la Orden Foral 1011/2010 anteriormente citada deberán acreditar su identidad utilizando la firma electrónica reconocida o a través de la clave operativa, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 21 del Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral.

Las personas o entidades a las que se alude en la letra c) del referido artículo 1.1 de la Orden Foral 1011/2010 deberán acreditar su identidad a través de la firma electrónica reconocida, con arreglo a lo dispuesto en el artículo 9 y siguientes de la Orden Foral 582/2014, de 5 de noviembre, por la que se regula el censo de representación en materia tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Los obligados tributarios que, no estando afectados por la obligación de realizar determinados trámites de carácter tributario por vía electrónica prevista en el mencionado artículo 1 de la Orden Foral 1011/2010, opten por presentar la declaración por Internet, podrán acreditar su identidad, además de utilizando firma electrónica reconocida o clave operativa, mediante el dato de contraste que se les requiera en el proceso de transmisión, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 21 del Decreto Foral 23/2010 citado anteriormente.

*Cuatro.* Los obligados tributarios que empleen el dato de contraste en la presentación del fichero deberán, necesariamente, utilizar el programa oficial de ayuda para la confección y transmisión del fichero.

Una vez confeccionado el referido fichero, el programa de ayuda permitirá el acceso a un servidor seguro del Departamento de Hacienda y Finanzas, en el que se requerirá el dato de contraste al objeto de ultimar la transmisión.

EK\CV GAO-I-2015-00674

*Bost.* 180 eredua banaka zein taldeka aurkez daiteke Internet bidez. Lehen kasuan, datuak biltzen dituen artxiboak aitortzaile baten datuak jasoko ditu, eta bigarrenean, aitortzaile batenak baino gehiagorenak.

Igorpen telematikoan sinadura elektroniko balioztatua edo pasahitz operatiboa erabiltzeak aukera ematen du banakako nahiz taldekako aitorpenak aurkezteko.

Aldiz, kontraste datua banakako aitorpenetan bakarrik erabil daiteke igorpen telematikoan.

*Sei.* Internet bidez aurkeztutako aitorpenak aldatu, zuzendu edo baliogabetu nahi badira foru agindu honen 4. artikuluan aipatzen den epea amaitu aurretik, Internet bidez egin beharko da beti.

*4. artikulua. 180 eredua aurkezteko epea.*

180 eredua urte bakoitzeko urtarrilaren lehen hogeita hamar egun naturalen barruan aurkeztu behar da, dela paperean, dela igorpen elektronikoz, eta aurreko urteari dagokion informazioa jaso beharko du.

Epearen azken eguna larunbata edo egun baliogabea bada, hurrengo lehen egun baliodunera luzatuko da.

*5. artikulua. 180 eredua paperean aurkezteko tokia.*

Paperezko euskarria erabiliz gero, 180 eredua aurkeztu behar da abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartutako Zergabilketa Erregelamenduak bilketan laguntzeko baimentzen dituen entitateetako batean (banku, aurrezki kutxa edo kreditu kooperatibetan), edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko herritarren arretarako bulegoetan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru agindu hau indarren jartzen denetik aurrera, indargabetuta geratzen dira foru agindu honetan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak eta, bereziki:

— 2/2002 Foru Agindua, urtarrilaren 9koa, hiri ondasun higiezinak errentan ematetik datozen etekinengatik Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, sozietateen gaineko zergan eta establezimendu iraunkorra duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan egindako atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena aitortzeko 180 eredua eta eredu horretako barne orrien ordez erabili beharreko euskarri magnetikoen diseinu fisiko eta logikoak onartzen dituena.

— 106/2002 Foru Agindua, otsailaren 8koa, 80, 190, 193, 194, 345, 347 eta 349 ereduen zerga aitorpenen aurkezpen telematikoa baimentzen duena, 180 ereduari dagokionez.

— 1.309/2002 Foru Agindua, abenduaren 30ekoa, hainbat zerga eredu euskarri magnetikoan edo bide telematikoz aurkezteko epea finkatzen duena, 180 ereduari dagokionez.

AMAIERAKO XEDAPENA

*Bakarra. Indarrean jartzea eta aplikatzea.*

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2015ean 2014. urteari dagokionez aurkeztu behar den aitorpenari aplikatuko zaio lehengo aldiz.

Donostia, 2015eko urtarrilaren 23a.—M.ª Jesús Pérez Garciarena, Ogasun eta Finantza Departamentuko idazkari teknikoa. (674)

*Cinco.* La presentación del modelo 180 por Internet podrá efectuarse de forma individual o de forma colectiva, según que el fichero correspondiente contenga los datos de un solo declarante, en el primer caso, o de varios en el segundo.

La utilización en la transmisión telemática de firma electrónica reconocida o de clave operativa posibilitará la presentación, tanto de declaraciones individuales como de declaraciones colectivas.

Por el contrario, la utilización del dato de contraste en la transmisión telemática únicamente será posible en la presentación de declaraciones individuales.

*Seis.* La modificación, rectificación o anulación de las declaraciones presentadas por Internet que se efectúe antes de la finalización del plazo a que se refiere el artículo 4 de esta orden foral, sólo se podrá efectuar por la misma vía.

*Artículo 4. Plazo de presentación del modelo 180.*

La presentación del modelo 180, tanto en soporte papel como mediante transmisión electrónica, deberá realizarse en los treinta primeros días naturales del mes de enero de cada año, en relación con la información referida al año inmediato anterior.

Cuando el último día del plazo sea sábado o inhábil, se entenderá prorrogado al primer día hábil siguiente.

*Artículo 5. Lugar de presentación del modelo 180 en soporte papel.*

El modelo 180 en soporte papel podrá presentarse en alguna de las entidades autorizadas para actuar como colaboradoras en la recaudación de los tributos (Bancos, Cajas de Ahorro o Cooperativas de Crédito), en los términos previstos en el Reglamento de Recaudación, aprobado por el Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, y en las oficinas de atención ciudadana del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

A partir de la entrada en vigor de la presente Orden Foral quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo previsto en la presente Orden Foral y, en particular:

— La Orden Foral 2/2002, de 9 de enero, por la que se aprueba el modelo 180 de declaración resumen anual de retenciones e ingresos a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Sociedades y del Impuesto sobre la Renta de No Residentes (establecimientos permanentes), en relación con los rendimientos procedentes del arrendamiento de inmuebles urbanos, así como los diseños físicos y lógicos para la sustitución de las hojas interiores de dicho modelo por soportes directamente legibles por ordenador.

— La Orden Foral 106/2002, de 8 de febrero, por la que se autoriza la presentación por vía telemática de las declaraciones tributarias a efectuar a través de los modelos 180, 190, 193, 194, 345, 347 y 349, en lo referido al modelo 180.

— La Orden Foral 1.309/2002, de 30 de diciembre, por la que se establece el plazo de presentación, mediante soporte magnético o por vía telemática, de determinados modelos tributarios, en lo referido al modelo 180.

DISPOSICIÓN FINAL

*Única. Entrada en vigor y aplicación.*

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletin Oficial de Gipuzkoa, y será de aplicación, por primera vez, para la presentación de la declaración a realizar en 2015, correspondiente al año 2014.

San Sebastián, a 23 de enero de 2015.—La secretaria técnica del Departamento de Hacienda y Finanzas, M.ª Jesús Pérez Garciarena. (674)

EK\CV GAO-I-2015-00674